

## Martin Ugaldere elkarrizketa

[Egile ezezaguna]

*Hitz*, Zenbaki berezia, 1975-03: 42-43.

*Hitz: Zer esan nahi du zuretzat Aberri Egunak?*

Ugalde: Niretzat, Aberri Eguna euskaldunen eguna da. Baina, "euskaldunen eguna", modu berezi batetan: Hots, beste herriek edo herri gehienek badituzte beren instituzioak, beren herri izateko bideak. Guk aldiz, herri bat izanik, eta aspaldikoa, ez dugu geure instituziorik, geure bizi molderik, geure politika-molderik. Honek sorterazi du, nonbaitetik, bat jartzeko asmoa.

Batzuek esaten dutenez, Eusko Alderdi Jeltzaleak, 1932 garren urtean, Sabino Arana Euskadi bere Aberria zela konturatu zen eguna bezala hartuta jarria zuen. Baina hau, nolana ere, ez zen 1932 garrena arte sortu. Orduan, egun hau nolabait jarri behar zela pentsatu zen, esan nahi berezi batekin: Euskadi, berez, herri izanez, bere herri-instituzioetara berpiztu behar zuela, esnatu behar zuela eta Berpizkunde Eguna aukeratu zen.

Horrek, enetzat, zer esan nahi duen? Euskaldunok, 1932 garrenaz gero hasi ginen urtero herri batetara biltzen: 1932 garrenean: Bilbora; 1933 garrenean: Donostira; 1934 garrenean: Gasteizera; 1935 garrenean: Iruñera 1937 garrenean, Aberri Eguna, besteotan ez bezala, gerran berean, ospatu zen. Eta, egiazko Aberri Eguna, 1937 garrenkoa izan zela uste dut: geure arerioen aurka, gerran, frontean, egin zen eta ospatu zen Eguna. Ni, Bilbon nintzen, familiarekin joana eta ez naiz ezertaz gogoratzen. Ez zen horretarako gogorik nonbait eta ez zegoen gauza horietarako asmorik. Baina, nik uste, eta orain pentsatzen jarrita uste dut, 1937 garrenkoa izan zela guk, euskaldunok ospatu dugun Aberri Egunik sendoena, indartsuena, eta esan nahirik gehien zuena. Geroztik, berriz izan zen 1964 garrenean, Gernikan; gero Bergaran, gero Gazteizen, eta Donostian, 1968 garrenean.

Modu askotara ager genezake Aberri Eguna zer den. Baina, nire ustez, zeraz gogoratzeko da euskaldun guztiek Aberri instituzioak behar ditugula, euskaldun jendeok bide batetatik joateko, eta ibiltzeko bideak sortu behar ditugula. Horretan elkar senditzeko eta elkarrekin izateko zerbait zait Aberri Eguna.

*Hitz: Gaurko giro politikoa ikusita, zer uste duzu izan behar lukeela aurtengo Aberri Egunak? Batasuna aipatzen du...*

Ugalde: Denok elkarrekin izan behar genukeela uste dut, ez bakarrik Aberri Egunean, baina egunero Aberri oso bat sortzen, eta Aberria berritzen lan franko badugula iruditzen bait zait. Baina, beste gauzetan gertatzen den bezala, oroigarriak eta seinaleak behar ditu gizonak. Guretzat, urtean behin behintzat, bereziki elkarrekin senditu behar genuke.

Joan diren urte horietan, zoritxarrez, gorak eta beherak izan dira gure artean, eta ez dugu geure arteko behar den girorik izan. Ez dakit noren falta den, ez da erreza batari edo besteari ematea kulpa (hobena). Beharbada, horretan, denok, euskaldun guztiok ditugu hutsak. Hala ere, aurtengo urtean zerbait aldatu dela badirudi, beharbada frankismoa hankaz gora doalako, beharbada, gu ere, geure lanak elkarrekin egin beharrean suertatzen garelako. Gainera beldur naiz, geure lanak elkarrekin egiten ez baldin baditugu, gainerantzekoek geure irabaziak jango dizkigutela.

Ideologiazko borroka asko dago gure herrian, beste herrietan bezala, baina geure ideologi-borroka horretarik atera eta geure herriko borroka ikusi behar dugu euskotar garenok. Horretaz behintzat konturatu garela uste dut, aurtengo Aberri Eguna elkarrekin egiteko asmo hori izan bait dugu. Asmoa ez da batena edo besterena izan, denena baizik. Goitik behera ez, baina behetik gora etorritako zerbait izan da.

Nahiz diferentziak badauden gure artean asmo hori sortu da. Diferentziak beti egoten dira gizonen eta taldeen artean, baina gure artekoak gainditu nahi ditu asmo horrek; beharbada datozen lanak handiak direlako, eta neke asko direlako; beharbada arerio asko ikusten dugulako, ez bakarrik frankismoa, baina ondotik etorriko direnak ere. Eskuinetik eta ezkerretik, euskaldunen aurka makina bat langile izango dugu. Horien aurka, elkartu eta lanerako bat jarri behar dugu euskaldunok.

Horretan, seinale bat izango da aurtengo Aberri Eguna. Lanean hasiak gara, zuek ere, zeuen paperak egiten ari zarete ikusten dudanez. Bakoitzak bere paperak egiten ari gara, bainan, hitzak bakarrik ez, izpiritua ere behar dugu jarri geure paperetan. Hitzak, ondo daude, baina hitzez gainera izpiritua eta ekintzak behar ditugu.

Aurtengo Aberri Eguna biziki ona izango dela uste dut. Erakutsiko die frankismoari eta espainolei, geure arteko diferentziak gainditzten badakigula: bste gaietaz diferentziak baditugu ere, Euskal Herria egiteko bat garela, eta arerioen aurrean bat osatuko garela. Hau da guk aurtengo Aberri Egunari emango diogun seinalea. Eta, geure Herriari poz handia ere emanen diogula uste dut, Egun hori, bakean, elkarrekin, indartsu eta kementsu betetzen badugu.

*Hitz: Gernikako Aberri Egunetik, ondorio bezala, zerbait aterako da euskal politikan? Zer ekar lezake?*

Ugalde: Politika ez da esatez egiten. Egunez egun egin gauzekin osatzen da. Askok, agerkari bat edo artikulua bat egin eta gero, gauzak konponduta daudela uste dute. Ez da hain erraz. Geure harremanak egunero behar ditugu egin. Zoritxarrez, politikan, bide luzea dugu, batez ere giro beltza dugulako geure artean.

Hegoaldean elkar hitz egiteko, gauzak zabaltzeko, batzar handiak egiteko, etab... bideak falta (eskas) zaizkigu. Telebista falta zaigu. Irratia falta zaigu. Bide horik gabe, gauzak zailago egiten dira.

Askotan, elkar ezagutzen ez dugun jendeok gorrotoa diogu elkarri. Elkar ezagutzen ez dugulako noski, eta buruan zenbait "cliché" badugulako. Horregatik ez da erraza bilera batez egitea gure arteko batasuna. Hasten gara pentsatzen: bata eskuindarra dela, eta bestea ezkertarra. Eta, buruan ditugun eskema batzuen bitartez dugu elkar ikusten. Hitz egiten dugularik, eskema horik goioan sartuak ditugu.

Aurtengo Aberri Eguna froga izango da, pauso hau noraino eta zer fidantzarekin elkarrekin egiten dugun ikusteko. Horretarako, behar dugu aurtengo pauso hau ondo eman, denok lana gogor egin eta batak besteari aurpegira gauzak bota gabe ari izan. Denok baditugu aurpegira botatzeko gauzak; toki guztietan gertatzen da hori eta gure artean ere bai. Baina hori biharko lana bezala utz, gaur gaurko garrantzia duen lan hau, elkartze hau, ikasita, eta Aberri Egun hau indartsu eta gogor ateratzen bada, uste dut gure politika erakundeetan aurrerako pauso haundi bat izanen dela, eta konfiantza berri bat sortzeko eta gizon bezala hobeto ulertzen hasteko bide bat litzatekeela.

Denok, datorren Aberri Egunean, Gernikan elkar, ikusten badugu eta lehenago deskonfiantzak izan ditugunok elkar ikusten badugu eta elkarri ezer erantzun gabe —ez da erantzuteko eguna— behar den bezala gauzak egiten baditugu, nik uste dut lehenengo pausoa izanen dela eta ez txikia. Denok baditugu gauzak erantzuteko; euskaldunok artetan memoria gehiegi dugu; memoria galdu egin behar dugu piska bat, "orain dela berrogei urte zu gogoratzen zara ta..."; hildako pertsonak ere gaur barkatzen dira. Egun hauek uneak dira gauza horik piska bat ahazten joateko eta konfiantza berri batzuk sortzen hasteko.

*Hitz: Ipar Euskal Herriaz zer diozu?*

Ugalde: Ene haur denbora beste mundu bat balitz bezala zen, urrutiko gauza bat. Hemen egon naiz 37 eta 38 garrenean Euskadiko gerra ondoren. Gero hogeitabost urte eramán dut Ameriketán. Orain herri hau neurea bezala senditzen dut. Ez da Euskal Herri osorik egingo bi aldeetako Euskal Herria bat osatzen ez den artean. Historiaz, kulturaz, hizkuntzaz, herri bat egiten dugun instituziorik izan ez badugu ere. Gaurko Aberri Egunean eskatzen duguna da ere bi aldeak bat izatea.